

Prensa-oharra

Fagor Industrial, nazioartekotzearen alde

- **Dubaiko Gulfood eta Turkiako Hostech bisitatu ondoren, Fagor Industrialek bere berritasunak aurkeztuko ditu Poloniako Eurogastro ferian**
- **Cook & Chill soluzioa eta E-VO ontzi-garbigailuen belaunaldi berria nabarmentzen dira batik bat**

Oñati, Gipuzkoa, 2014ko martxoak 26. - [Fagor Industrialek](#) sukaldaritza, ostalaritza eta catering alorretarako **berritasunak aurkeztuko ditu Eurogastro**n, sektore horien inguruan Polonian egiten den azotarik garrantzitsuenean.

Gaurtik eta martxoaren 28ra bitarte, MT Polska Centre zentroan egongo da Fagor Industrial, eta 55 m²-ko stand batean erakutsiko ditu Horeca sektorearentzako berritasunik nagusienak.

Oraingoan, Fagor Industrialek Poloniara eramango du **Cook & Chill** soluzioa, alegia, labeaz eta tenperatura jaitsarazteko gailuez osaturiko konbinazio bikaina, merkatu europarrean harrera ona izaten ari dena. Fagor Industrialen azken sorkuntza horren bidez optimizatzen dira sukalde profesional batean gauzatu beharreko **lana, beharrezko espazioa, errendimendua, eraginkortasuna eta produktibitatea**. Horretarako, Advance labeen azken belaunaldia eta tenperatura jaitsarazteko gailurik berrienak uztartu dira.

Fagor Industrialek ferian erakutsiko du urteko eskaintzarik garrantzitsuena, hain zuzen ere, **baxerak garbitzeko E-VO GENERATION linea berria**. Belaunaldi berria hiru gamatan aurkeztuko da: **Advance, Concept + eta Concept**, merkatuan eskura dagoen punta-puntako teknologiarekin. E-VO GENERATION lineak produktu soil, ekologiko eta eraginkorrakoak eskaintzen ditu, Horeca sektorean aritzen diren profesionalen behar oro asetze aldera.

Nazioarteko bestelako hitzorduetan bezala, Fagor Industrialek **Fagor Cooking Experience** saioak eskainiko ditu egunero, korporazioko chef Oier Birtxinagaren eskutik. Hala, sukaldaritza-erakustaldien bidez, chefak ferriko bisitariei helaraziko die Fagor Industrialen katalogoa osatzen duten askotariko osagaien

gaitasuna.

Ostalaritzako teknologiaren inguruko topaketarik garrantzitsuenen den **Hostech ferian, Turkian**, egon eta astebetera heldu da Fagor Industrial Poloniara. Izan ere, **martxoaren 12tik 16ra**, Fagor Industrialek sukalde-ekipamendurik osatuena eta sektoreko teknologiarik gailenena aurkeztu zituen Istanbulen eta, beraz, **nazioartekotzearen alde egindako apustua berretsi zuen.**

“Eurogastro ezinbesteko hitzordua da bai gure negozio-aukerak sendotzeko bai sektoreko eragilerik garrantzitsuekin harreman pertsonala indartzeko”, adierazi du Peio Bengoetxeak, Fagor Industrialeko marketin-buruak. ***“Nazioarteko erakusketa hau ezin hobea da gure produktu-berritasunak aurkezteko, European oso garrantzitsua baita feria”***, baieztatu du Bengoetxeak.